

ODOL IRRIOAK ETA ODOLEZKO ERREKAK. BERTSO BERRIAK, EUROPAKO GERRATE HANDIARI JARRIAK

Elixabete Perez Gaztelu

Etsai gaiztuak parte artuta
dabiltzalako mediyo,
Europa triste ontan ixurtzen
da zenbat **odol irriyo**. (Juan eta Pello Zabaleta).

Mediko batengandik
ala det aditu:
odolezko errekek
dutela korritu. (A. jarriyak)

(A. Zavala, 1958, "Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914-1918)". Letra lodia gurea).

Odolezko errekek eta irrioak sortu zituen 1914ko uztailaren 28an hasi eta 1918ko azaroaren 11n amaitu zen gerrate latzak. Gerrate horrek, beste hainbatek bezalaxe, euskaldunen bizitzan ez ezik euskal literaturan ere bere hatza utzi zuen. Horri begiratuko diogu orain, batik bat gerrate hura bizi izan zuten Errenteriako eta inguruko bertsolariengandik iritsi zaizkigun bertsoak kontuan hartuta. Bidelagun eta makulu ezin utzizkoak ditugu jaso berri dugun Antonio Zavalaren 1958ko hitzaldia eta Patri Urkizuren 1997ko bi artikulu.

Urkizuk bi lan horietan¹ dioen bezala, XX. mende hasierako hainbat euskal idazlek era batera edo bestera ispilatu zuten "Gerrate handia" bere lanetan. Besteak beste, Frantziako armadako soldadu euskaldunekin² gerratea sufritu behar izan zuen Jean Elizalde "Zerbitzari" apaiz azkaindarrak *Eskualduna* astekarira³ kronika gogorak (eta bertsoak) bidali zituen⁴. Borrokaldian ez zen ibili, baina haren berri ematen zien Hegoaldeko irakurleei Ebaristo Bustintza "Kirikiño" mañariarrak:

1. Ik. Bibliografian 1997a eta 1997b lanak.
2. Gerrate horretan ikusten dute hainbatek, hain justu, Iparraldeko euskaldunak frantsesteko giltza. Eneko Bidegainek doktore tesi argitaratu berrian horixe erakutsi du.
3. Orain Interneten kontsulta daiteke: www.hemeroketa.com.
4. Patri Urkizuk editatu zituen kronikak 1995ean Alberdania argitaletxean. Bibliografian aipatu dugu.

iristen ziren gerratearen gaineko berriak egokitu eta euskaratuta argitaratzen zituen *Euzkadin*⁵.

Poesian ere ispilatu zen gerratea. Gure inguruko adibide bat ekartzearen, aipa dezagun Jose Elzo Azpiazu astigarragar olerkaria (1893-1916), Erreterian eskolak euskaraz ematen zituen mai-sua eta "Erreteriko xoxua" izengoitia zerabilena. 1915ean *Euskal-Erria*. *Revista euskara* aldizkarian "Europa'ri" olerkia⁶ argitaratu zuen. Hona bukaera:

Ara or nola guda gogorrez puskaturikan
Arkitzen diran su ta garretan kixkaldurikan...

.....

¡Egizu negar, odol malkoaz, Europa zarra!
¡Egizu negar! ¡negar samiña! ¡damu negarra!
¡Auzpeztu zaite! zure Jaunaren aurrean «umill»
Beti-betiko, errukarriya, etzaitezen ill!

Lekuko horien ondoan, bertsolariak ere kon-tuan hartu beharrak dira, izan ere, bertsoa bitar-teko aukerakoa da herri xeheak gertaera gogor hura nola bizi izan zuen jakiteko; beste gisa batera esanda, bertsoa ez da historialarientzat muzin egi-teko moduko iturria.

Gerrak bertsoetan

Gerrek bertsogintzan ere lekuko asko utzi dituzte. Antonio Zavalaren Auspoa saila begiztatu beste-rik ez dago horretaz ohartzeko. Izenburu hutsek erakusten dute gutxienez hamalau liburutako⁷ bertsoek zerikusia dutela euskaldunek bizi izan duten gerraren batekin: Frantziako Iraultza, Konbentzio gerra, Frantsestea, Kubakoa, Afrikako gerrateak, Karlistaldiak, 1936koa... eta, jakina, baita 1914koa ere.

5. Horren bilduma ere gerora argitaratua dago. Ik. Bibliografia.

6. *Euskal-Erria* 1915, 72, 163. or. (1915.01.01).
<http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/2813>

7. (1961): F. Apalategi. *Euskal mutillak armetan I*, (1964, 1994): S. Salaberria. *Neronek tirako nizkin*, (1977): *Afrikako gerra (1859-1860)*, (1979): *Soldaduzkako bertsoak*, (1981): I. Alkain. *Gerrateko ibillerak I*, (1983): *Kubako gerra*, (1983): P. Lazkano. *Tiro tartean bertsotan*, (1984): S. Zapiain "Ataño". *Espetxeko negarrak*, (1985): S. Zapiain "Ataño". *Zigorpean*, (1989): *Frantziako iraultza eta konbentzio gerra bertsotan*, (1991): *Frantzesteko bertsoak I*, (1992): *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*, (1997): *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*, (2005): F. Apalategi. *Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak*.

Gai horixe jo zuen begiz, hain justu, Antonio Zavalak lan baterako, orain dela 56 urte. 1958. urteko abenduaren 14an "Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914-1918). (Gure erriaren literaturaren erakusbide)" izeneko hitzal-dia egin zuen Bilbon, Euskaltzaleen II. Biltzarrean. Beste erreteriar bat tartean dela eta, esan deza-gun biltzar horretan Zavalaren bertsolarien gaineko hitzaldiaren ondoren, Koldo Mitxelena "Euskal-itzak zein diren", euskal hitzen jator-tasunaren gaineko txosten aipagarri eta erabakigarria aurkeztu zuela⁸. Honela jaso zuen idazkari lanean aritu zen Alfontso Irigoyen zenak aktan (*Euskera* 4 (1959) 206):

Aita Zabala-k bukatuta Mitxelena jaunari ematen zaio itza. Leendabizi adierazten du Arrue jaunaren partez ezin etorri izan dala Madrilera joan bearra zeukalako eta dio ere Irigaray jaunak esan zuela, etorriko zala aal baldin bazuen, baiña ez zala agertu. Ala ere lana bialdua dauka. Itzaldia asten du.

EUSKAL-ITZAK ZEIN DIREN

Bere itzaldian leendabizi dio zerk bultzatu duen autatu duen gaia autatzera: Alegia, euskal-itzak zein diren. Eta gero Larra-mendi alpatzen du, bere nortasuna, eta euskalari eta euskal-izkribitzaille zan aldetik zeuskan usteak eta aien arrazoiak. Dio euskal itzetan zeuskan teoria asko ezirela euskaldunentzat egifiak, kanpokoentzat baizik. Berak aieri erakutsi nai zien euskera gai zala edozer gauza esateko. Eta gai zala edozer gauza esateko erderatik artuak etziren itzekin. Botikario askok egiten duten bezela Larra-mendi-k etzuen berak saltzen zuen botikarik artzen eta be-rak euskeraz idatzita utzi dizkigun gauzetan garbi eta jator min-tzatzen da. Gaifera ber-berak dio sartuta dauden itzak, naiz-eta erderatik sartuak izan erabili bear dirala. Ori itzez itz berak dio.

Aita Zavalak hitzaldi horretan 1914ko gerra hizpidean izan zuten bertsolariok aipatu zituen: Jose Manuel Lujanbio Retegi "Txirrita" (Ereñozu, 1860-Altza, 1936), I. R.T. (Joxe Ramon Taberna (Oiartzun, 1886-Erreteria, 1942)), Jose Garmendia Zabala (Altza, 1885-Altza, 1924), Kepa Enbeita "Urretxindorra" (Muxika, 1878-Areatza, 1942), Juan Jose Sarasola "Lexo" (Lezo, 1867-Donostia, 1952), Juan Zabaleta Lekuona (Erreteria, 1894-Erreteria, 1950), Pello Zabaleta Lekuona (Erreteria, 1896-Erreteria, 1967), Fermin Imaz

8. Labur-labur esan dezagun txosten hori guztiz funtsezkoa izan zela euskal lexikoaren aurrerabiderako eta euskaldun batzuek lexikoaz zuten ikuspegi garbizale muturrekoaren (garbizalekeriaren?) kalteak agerian jartzeko. 1959ko apirilaren 2an Euskaltzaindiak agiria plazaratu zuen eus-kal hitzei buruz aldarrikatzeko eliza, arima, baliatu, soka, finkatu... (eta, eransten dut, errenta, erreterero eta erre-terria) bezalako hitzak euskal hitzak direla, eta kultur hizke-ratik geureganatutako literatura, gramatika, kilometro, politika... bezalakoak ere bai.

(Donostia, 1879-Donostia, 1929). Era berean, nor den ez dakigun Pedro Tolosa izeneko bertsolaria eta egilea nor duten ez dakigun "A. jarriyak" bertso sortak ere ahotan hartu zituen Zavalak.

Zerrendak erakusten digu ez duela Zavalak Iparraldeko bertsolaririk jaso. Aitortzen du ezin izan duela. Huts handi samarra da, Hegoaldera eragina iritsi bazen ere, Iparraldean sufritu baitzuten, gogor sufritu ere, gerratea.

Patri Urkizuk aipatutako bi lanetan Iparraldeko bi koplari izendatzen ditu: Jean Baptiste Borthiri atharraztarra⁹ eta Louis Ligueix larrañetarra¹⁰. Urkizuren iturria Txomin Peillenek eta Jon Mirandek argitaratzen zuten *Igela* aldizkari "heterodoxoa" da; 1962ko 3. alea. Zavalaren hitzaldia lau urte lehenago izan zen, ordea; 1958an. Litekeena da, hortaz, Zavalak bertso horien berri ez izatea.

Beste huts bat ere sumatzen dugu 1958ko Zavalaren bilduman: 1917an "Gerra europeari" bertso berriak egin zituen Joxepa Antoni Aranberri Petriarena xenpelartarrarena.

Guk dakigula, Joxepa Antoni "Xenpelar" bertsolariaren gainera lehen berri idatzia Zavalak eman zuen, hain justu, 1968an argitaratu zuen *Erreterria'ko bertsolari zaarrak* izeneko liburuan¹¹. Hitzaldia egin eta hamar urtera. Beharbada, hitzaldia prestatu zuenean ez zuen artean Joxepa Antoni Aranberriren berri. Baina Zavalak hitzaldia bi aldiz argitaratu zuen: lehen aldaera 1959an, Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian, eta lan bera, baina moldatua, 1996an, *Auspoaren auspoa* izeneko bilduman. Bilduma horretan, hain zuzen ere, lehen edizioari oin-ohar batzuk erantsi zizkion. Honen modukoak, adibidez. Ikus bi edizioak elkarren ondoan:

-
9. *Igelako* editoreen arabera, "Jean-Baptiste Borthiri, Atharrazte Sala-ko seme Ziberuko koblakari handi bat dizüğü. Mente huntako lehen gerlan blesatürik, gerlari ohi hao Atharrazten erretiratürik bizi düzü. Ligueix-en gisa gizun ixil horrek eztü sekülan bere breseten püblikatzeko arrenküarik izan, nahiz franko hunik egin dian".
10. Urkizuren hitzetan: "Eta hona Luis Ligueixen, koblakari larrañetarraren bertso elebidun eta umorez beteak, non biltzen diren alde batetik, gerra kontrako izpiritua (*nous n'avons plus de guerre* ez eta beharrik) eta bestetik, euskaldun-frantsesen gerra harrotasuna". (Urkizu 1997a:44).
11. 1969ko *Xenpelar bertsolaria* eta 1993ko *Xenpelar eta bere ingurua* izeneko liburuetan ere aipatu zuen.

Bañan Txirritaren kontra azaldu zen aleman zale bat. Paperak onela dio: BERTSO BERRIYAK I. R. T'EK JARRIYAK. Ezin degu sumatu nor izan ditekanean egillea. (Zavala 1959: 185).

Bañan Txirritaren kontra azaldu zen aleman-zale bat. Paperak onela dio: *Bertso berriyak J. R. T'ek jarriyak*. Ezin degu somatu egillea nor izan ditekanean [OIN-OHARRA: Jose Ramon Taberna, Erreterriarra¹². Aren argibideak eta bertsoak: *Erreterria'ko bertsolari zaarrak, Auspoa* 74-75. 1968]. (Zavala 1996: 71).

Alegia, bazuen Joxepa Antoni Aranberriren berria, irakurlea igortzen duen liburu horretantxe aipatzen du eta bertsolaria. Zergatik ez zuen bigarren edizioan Aranberriren gainera oharrik erantsi jakitea ez dago gure esku.

Hutsuneak hutsune, gerra piztu zela mende bat igarota ere mami franko du Zavalaren lanak, hainbat aiekatatik, gainera. Errepara gaitetzen, lehenik eta behin, ia bertsolari guztiak erreterriarrak edo ingurukoak direla. Litekeena da hemengo jendeak gertuagotik bizi izatea gerra. Gainera, frantses jatorriko jende multzoa bizi zen Erreterrian¹³.

Bertsoen mamian sartuta, berriz, ohartzekoa da bertsolari batzuek ez dutela alderdi hartzen borrokan ari diren herrialdeen artean, baina hartzen dutenen artean ez dago iritzi bakarra.

Ozen egin zuen Txirritak Frantziaren (Foch, Petain jeneralen), Amerikaren (Wilson presidentearen) alde ("biba gerra ontan gure fabore ibilli diran guziyak"), eta Alemaniaren (kaiserraren) kontra. Areago, bere burua frantsesen artean kokatzen du; beharbada, Frantziaren lanean urteak emateak eramango zuen horretara. Baina atentzioa ematekoa da ez Txirritak ez Hegoaldeko gainerako bertsolariek ez dituztela Iparraldeko euskaldunak aipatzen.

Illo beretik, nahiago du Ingalaterra Alemania baino Garmendia altzatarrak. Enbeita bizkaitarrak inoren alde egiten ez badu ere, alemanek

-
12. Berez Oartzunen jaioa zen, nahiz Erreterrian bizi izan eta hil zen.
13. Mikel Zabaletaren hemengo "1914" artikulura jo daiteke gerrak frantses jatorriko erreterriarren izan zuen ondorioen berri izateko.

mendean hartu zuten Belgika du begiko (Txirritak ere aipatzen du "naziyo txiki gaxua").

Alemaniarren aldekoen artean J. R. Taberna eta Joxepa Antoni Aranberri (karlistak, integristak?) aipatzekoak dira. Tabernak Txirritari erantzun zion Alemaniaren alde eginez, eta erantsita frantsesek inozente jokatu dutela amerikanoei bidea horrela zabaldua, konturatzerako Bordeletik Hendaia bitarte dena amerikanoa izango dela. Areago, Alemaniak gerratea galdu izanaren errua, besteak beste, kontrario asko izateari, amerikanoen laguntzari eta Alemaniako sozialistei ematen die. Aranberri Petriarenak Alemania goratu eta Ingalaterra harrozkotzat jotzen du. Alemania irabaziko zuelakoan zegoen 1917an.

Alegia, bertsolarion lekukotasun hutsa hizpi-dean hartuta, *Berriak* aurtengo otsailaren 23an argitaratu zuen gerraren gaineko eranskineko atal bateko tituluak dioena pixka batean ñabartzeko modukoa bide da.

1914-1918 LEHEN MUNDU GERRA 05

eta Zita. Bai-
zen inperioa-
nbat herrial-
peradoreek.
eumonia ba-
zortzigarren
spainiakoak
n neskatoa,
zen doluzko
ne-alabekin,
ez —buruan
si zen Urilba-
Horretarako
arkikiak kide
lapanari au-
arquicakoak
ak Lekeitio-

**HEGOALDEAN,
GEHIENAK
ALIATUEN ALDE**

**Bizkaiak Ingalaterrarekin
zituen loturen eragina nabaria
zen. 1916an, autodeterminazio
eske hasi ziren abertzaleak.**

Irene Lasa

Ameriketako azken koloniak galdu berri, batasun arazo handiak bere baitan, ekonomikoki ere gaizki... Ahultasuna: hori izan zen Espainiak bere burua neutral deklaratzeko arrazoia. Hala ere, banaketa izan zen bando baten edo bestearen alde, eta Espainian asko germanofilo gisa agertu zen, tartean, dirudienez, Alfontso XIII.a erregea.

Halako banaketa izan zen Hego Euskal Herrian ere, baina nabarmen gehiago izan ziren aliatuen aldekoak. Alemanen aldekoen artean. Iñaki Goicoeana historiala-

keitio Zita
ik Belgikara
rra iristean,
enean gorde-
na, Otto von
eitiora, bisi-
atzuk ere go-

Horren gaurkoa dirudien europazaletasunaren gaiak ere ispilua du bertsootan. Esate baterako, Juan eta Pello Zabaleta europazale agertzen dira: "Gora Europa maitagarriya, / gora europatar guziyak". J. R. Tabernaren ikuspegiak ere badu

interesik. Alemaniaren alde agertzen da, baina Europa eta Amerika (*yankiak*) elkarren pare jarri eta Europaren alde egiten du: "Berak eziñ ta yankiak diruz / egiñ diyote borroka, / oiek amerikanuen mendian / jarri digute Europa".

Gerrarekin eta hizkuntzarekin zerikusia duen beste alderdi baten berri ere ematen digute bertsook; erakusten digute arma-bitartekoei eta aurrerapen teknologikoei nola erreparatzen zieten eta euskaraz nola izendatzen zituzten: *kanoia, metraila, urpekoa, zepelina, aeroplanoa, submarinoa* aipatzen ditu Joxepa Antoni Aranberrik. Txirritak ere *zepelina, sumarinua, bonbak, itsasoko minak...*

Gerrateak Hegoaldean zein ondorio ekarri zituen ere hizketa gai dute bertsolari batzuek. Esate baterako, Zabaletatarrek dena garestitu dela diote eta bizitza aurrera ateratzeko aski lan dutela: "gauza guziya garesti, / len erdi ipurdi bizi giñanak / gaur nola zenbat fameli [...] / lenago amar baliyo zuen / gauza oraiñ hogeï kendu, / tamaña onetan gu bezelako pobria nola mantendu?".

Bertsoetan adierazi gabe ere, bertsolari batzuegan arrunt ondorio larriak ekarri zituen zorigaitzeko gerrateak. Juan Krutz eta Joxe Zapirain bertsolariek emazteak galdu zituzten 14ko gerratea izan zela medio:

Europa'ko gerra (1914-1918) bukatu ta laster, gripe-izurrite ikaragarri gaizto bat zabaldu zan. Arentzako mugarik etzan, eta Bidasoaz onuzko aldean ere gallendu ta kristau asko il zituan.

Telleria'n, **Mikaela, Juan Krutzen emaztea eraman zuan; 1918.XII.4'an il zan, gaueko zortziretan.**

[...]

**Juan Krutzen emaztea il da andik bi ille-
betera, Joxeren andrea il zan; gripez au ere.**

Etxeko danak kutsatu omen ziran, gura-soak eta seme guziak alegia, bat izan ezik: Saturnino.

Danak, gaitzaren mendetik atera ta sendatu ziran; bañan ama ez. Aur egin berria baitzegoan, aul xamar arrapatu zuan. Gripe ez-
ezik pulmonia ere izan zuan: «*pulmonia doble gripal*», eriotz-agiriak dionez. Arek eraman zuan, 1919.II.28'an, ogei ta hemeretzi urteko ama gaztea zala. (Zavala 1975: 24, 26). Letra lodia gurea.

Ikuspegi labur honen bitartez osatu nahi izan dugu, hein batean bederen, Zavalak eta Urkizuk aztertua. Era berean, balioetsi nahi izan ditugu bertsoak garai bateko informazio-iturri moduan. XX. mende hasierako bertsolarien hitzok aukera eman digute "odolezko errekak" eta "odol irrioak" sortu zituen gerrate latz haren itzala urtekari honetara ekartzeko.

* * *

Las guerras en las que se han visto implicadas Francia y España han tenido una presencia importante en la literatura (popular) vasca. Buena muestra de ello es la lista de libros de versos editados por Antonio Zavala en la colección Auspoa que tomamos aquí como fuente de información histórica. En nuestro artículo se recogen referencias de versolaris de Errenteria y alrededores a la 1º Guerra europea o Guerra mundial (la "Gran guerra"), guerra que creó, en palabras de los hermanos Zabaleta, "ríos de sangre". Tomamos como punto de partida la conferencia "Bertsolariak eta Europako lehengo gerratea (1914)", impartida por Antonio Zavala el 14 de diciembre de 1958 en Bilbao. Destacamos algunos temas que se traslucen en los versos recopilados por Zavala —entre otros, la filiación de los versolaris— y añadimos la aportación de Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, versolari renteriana germanófila, que dedicó una serie de versos a la guerra en 1917.

Bibliografia

- Bidegain, Eneko (2014): *Lehen Mundu Gerra Eskualduna astekarian*. Iker 30, Mondragon Unibersitatea-Euskaltzaindia.
- Bustintza, Ebaristo, "Kirikiño" (1989): *Guda nagusia (1914-1918)*. "Sutondoan". Labayru ikastegia.
- Elizalde, Jean, "Zerbitzari". Ik. Urkizu (1995).
- Eskualduna (1887-1944) in *Euskal prentsaren lanak*. www.hemeroketa.com
- Mirande, J. eta Peillen, T. (1962): "Batista Sala", *Igela* 3, <<http://andima.armiarma.com/igel/igel0315.htm>>
- Urkizu Sarasua, Patri (ed.) (1995): Elizalde, Jean, "Zerbitzari". *LVII.a gerlan*, Alberdania.
- , (1997a): "Elissalde eta Etchepare. Apaiza eta medikua gerra-kronikari", *Oihenart* 14, 35-46. < <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/literatura/14/14035046.pdf>>
- , (1997b): "Bertsogileak eta II Mundu Gerratea", *Oihenart* 14, 199-202. < <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/literatura/14/14199202.pdf>>
- Zavala, Antonio (1959): "Bertsolariak eta Europako lehengo gerratea (1914-1918). (Gure erri-literaturaren erakusbide)". Euskaltzaleen II. Biltzarra, Bilbo, 1958ko abenduaren 14an emandako hitzaldia. *Euskera* 4 (1959): 183-206. <http://euskaltzaindia.net/dok/euskera/51196.pdf> [1996. In *Auspoaren auspoa. Itzaldiak / Conferencias*: 67-100 Auspoa. http://www.euskaltzaindia.org/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/18437.pdf]
- , (1975): *Zapirain anaiak. Juan Krutz (1867-1934). Joxe (1973-1957)*. Auspoa 123, 124, 125.